

Horrelako gomendio gehiago ezagutu nahi badituzu, jo ondorengo dokumentuetara:

### EL CAMINO MÁS FÁCIL:

DIRECTRICES EUROPEAS PARA FACILITAR LA LECTURA (1998)  
[http://www.feaps.org/files/noticias/EI%20camino\\_manual\\_lectura\\_facil.pdf](http://www.feaps.org/files/noticias/EI%20camino_manual_lectura_facil.pdf)

### Información para todos. FEAPS.

[http://www.feaps.org/files/noticias/EI%20camino\\_manual\\_lectura\\_facil.pdf](http://www.feaps.org/files/noticias/EI%20camino_manual_lectura_facil.pdf)

### Lectura Fácil: métodos de redacción y evaluación (2012)

[http://www.feaps.org/archivo/centro-documental/cat\\_view/207-accesibilidad.html](http://www.feaps.org/archivo/centro-documental/cat_view/207-accesibilidad.html)

### Asociación Lectura Fácil de Euskadi

<http://lecturafacileuskadi.net/>

### Horregatik Komunikazioa

Gizarte komunikaziorako estrategiak  
Avenida de Tolosa 79, Donostia (Gipuzkoa)  
943.571757 // [info@horregatik.com](mailto:info@horregatik.com)  
[www.horregatik.com](http://www.horregatik.com)



Informazio ona egitea  
irakurtzeko eta ulertzeko erraza  
den informazioa egitea da



IRAKURKETA ERRAZEAN MATERIALAK  
SORTZEKO GOMENDIOAK

## HIZKERA

- \* Hizkera erraza erabili: ohikoak eta ulerterrazak diren hitzak aukeratu. Kontuz, ordea, haur-hizkuntza erabiltzeko joerarekin.
- \* Saihestu sinonimoak: kontzeptu bati buruz aritzeko hitz berbera erabili beti.
- \* Ez segurutzat jo irakurleak gertakizunak ezagun dituela: errepikatu itzazu beharrezkoa ikusten baduzu.
- \* Gertakizunak modu kronologikoan azaldu.
- \* Adibideak erabili, irakurriko zaituen pertsonak ulertzeko modukoak.
- \* Hitz egiozu pertsonari zuzenean: lehenengo eta bigarren pertsonak erabili.
- \* Erabili zenbakiak datuak/zifrak emateko.

## INFORMAZIOAREN BANAKETA

- \* Esaldi bakoitzeko ideia bakarra eratu.
- \* Gai berdinari buruzko informazioa elkarrekin jarri.
- \* Garrantzitsuena hasieran kontatu (alegia, gertakizunak), eta ondoren zehaztasunak ematen joan.
- \* Errepikatu gertakizun garrantzitsuenak.
- \* Esaldi motzak egin, 25-30 hitz ingurukoak.
- \* Paragrafo motzak egin, gehienez 8 lerrokoak.
- \* Letra larriak ahalik eta gutxien erabili: minuskulak errazago irakurtzen dira.
- \* Kurtsiba saihestu, irakurtzeko zailagoa baita.
- \* Arreta jarri puntuazio zeinuei: erabili bakarrik puntua edota koma.

## DISEINUA

- \* Gogoratu ulergarritasuna edertasunaren gaintetik dagoela.
- \* Erabili letra tamaina handia: gomendagarria da 14 puntukoa, eta gutxienez 12 puntukoa.
- \* Arreta jarri letra motari: serif gabekoak hobeto irakurtzen dira: Arial, Tahoma, Verdana, etab.
- \* Ez erabili 2 letra mota baino gehiago.
- \* Tituluei garrantzia eman: ikusgarriak eta argiak egin. Orrialde bat baino gehiago landuko badugu, tituluak leku berdinean jarri eta letra mota bera erabili.
- \* Lerroen arteko tarteari erreparatu: tipografiaren araberako tartea jarri, baina hobe tartea handi xamarra bada (1,5 adibidez).
- \* Ezkerraldean kokatu testua: ez "justifikatu", zailagoa baita lerroa jarraitzea.
- \* Saiatu hitz mozketa saihesten eta ez utzi amaitu gabeko esaldiak orrialde ezberdinetan.
- \* Ez erabili diseinu bertikala edota zutabeak: horizontalean hobeto.
- \* Ez jarri kolorea letren atzealdean, zaildu egingo du irakurketa. Jarri nahi baduzu, erabili kolore iluna atzealdean eta oso argia letrentzat.
- \* Irudiek lagundu testua.

## SAIESTU BEHARREKOAK

### ADIBIDEAK

X

✓

Kontzeptu abstraktuak	<i>Bizitza kalitatea</i>	<i>Zoriontsu izan, osasuna izan, ondo pasatu...</i>
Izaera teknikoa duten hitzak	<i>Gure negozioak jasan duen hazkundeari esker</i>	<i>Gure jarduerak igo egin dira, eta, horri esker,...</i>
Metaforak	<i>Zure ahoko perlak</i>	<i>Hortzak</i>
Ahots pasiboa	<i>Zuzendariarengandik zorionak jaso zituen</i>	<i>Zuzendariak zoriondu zuen.</i>
Ezezko esaldiak	<i>Ez da batere erraza dantzan ikastea</i>	<i>Dantzan ikastea zaila da</i>
Datuak idatziz eman	<i>Etxe hartan lau pertsona heldu eta bi haur bizi dira</i>	<i>Etxe hartan 4 pertsona heldu eta 2 haur bizi dira</i>
Zifra altuegiak edota portzentajeak	<i>Miloi eta erdi pertsonen ikusi dute pelikula</i>	<i>Pertsona askok ikusi dute pelikula</i>
Hitz zerrendak	<i>Aitorrek esnea, ogia, arrautzak, urdaiazpikoa eta olio erosi zituen</i>	<i>Aitorrek esnea eta ogia erosi zituen. Arrautzak ere bai. Eta ogia eta olio.</i>
Siglak eta inizialak	<i>Tabakoaren lege berria ezarriko dute EHan</i>	<i>Tabakoaren lege berria ezarriko dute Euskal Herrian.</i>